


*EUSKARA
BIDEO-JOKOETAN*

EL EUSKERA
EN LOS
VIDEOJUEGOS



EUSKARA BIDEO-JOKOETAN

Euskara dugu euskal gizartearen berezitasunaren adierazle nagusia, inondik ere. Antzinarotik datozkigu gure hizkuntzaren lehen erreferentziak, Iberiar penintsularen eta Frantzia hegoaldearen artean, Bizkaiko golkoaren ondoan. Euskarazko lehen programa informatikoak aurkitzeko, baina, ez dugu denboran hain atzera egin behar: 1990eko hamarkadaren erdira arte bakarrik.

Garai hartakoak dira ordenagailuetarako lehen produktu elkarreragileak: jolasaren bidez zerbait irakasteko helburuz landutako programak ziren, hezkuntza-alorrari lotuak eta gelan nahiz etxean erabiltzeko modukoak. *Serious games* izenez ezagutzen dira joko horiek gaur egun. Elhuyar kultur elkarte eta Ikastolen Elkartea aitzindariak izan ziren, beste batzuekin batera, 3-18 urte bitarteko haurrei zuzendutako halako materialak garatzen.

Halere, mende berrira arte ez zen hedatu era horretako produktuekiko interesa, harik eta IBM bateragarriak (PCak) merkaturatzearekin batera informatika demokratizatu zen arte. EAEn, Eusko Jaurlaritzaren «Konekta zaitez»¹ programak asko lagundu zuen hedapen horretan: etxeetan informatika-ekipoak erosteko diru-laguntzak ematen zituen programa horri esker asko handitu baitzen autonomia-erkidegoko ordenagailuen kopurua.

Hala adierazten dute Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen datuek: 1999ko hirugarren hiruhilekoan EAEko 15 urtetik gorako biztanleen %32,7ek baino ez zeukaten ordenagailua etxean; 2014an, %77,2ek².

EAEko informatika-ekipoen kopuruak izandako hazkunde handiak, batetik, eta hezkuntza-curriculumean Informatika irakasgaia sartu

1. «Euskadi Informazioaren Gizartean» planaren barruan zegoen programa horrek Interneterako sarbidea ahalbidetu nahi zien herritar guztiei, eta, horretarako, diru-laguntzak ematen zituen sarerako konexioa zuten ordenagailuak erosteko, finantza-erakundeekin elkarlanean. Programa 2000 urteko azaro amaieran jarri zen martxan.

2. 2014an EAEko familiei egindako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestan jasotako datuak. (2015eko maiatzaren 20a)

izanak, bestetik, asko handitu zuen euskarazko informatika-programen eskaera, eta, eskaera horri erantzuteko, Eusko Jaurlaritzak lankidetzahitzarmenak sinatu zituen softwarea garatzen zuten enpresekin eta bertako zenbait elkarterekin. Software-programa gehiagoren eskaera ez zen, baina, horretara mugatu. Erabiltzaileek askoz gehiago nahi zuten, eta orduan agertu ziren euskarazko lehenbiziko bideo-jokoak.

Euskara sustatzen

Ordura arte gurean egindako bideo-jokoek Espainiako Estatuko merkatua zeukaten xedetzat. Joko haien garatzaileek denda guztietako apaletan ikusi nahi zituzten eta gaztelaniaz egin zituzten. Hala ere, badaude ingelesez egindako bideo-joko batzuk, hala nola, *Risky Woodsek* (Zeus Software, 1992), eta Picmatic-en jolas-makinek, *Los justicierosek* (1993) eta *Marbella Vicek* (1994). Hauek nazioarteko merkatuetan saldu egin ziren.

EAEko erakundeak izan ziren euskarazko jokoek eskaerari erantzuten saiatu ziren lehenbizikoak. 1999. urte amaieran, «Euskara biziberritzeko plana» onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bertan zenbait hutsune nabarmentzen ziren, aisialdian eta gazteen alorrean bereziki. Era berean, euskara ikasgelatik kanpo ere erabiltzeko beharra azpimarratzen zuen planak, askorentzat zigorra baitzen eskolatik kanpo euskaraz aritzea.

Programa hori martxan jarri zen urte berean Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzarako zuzendari nagusi izendatu zuten Lorea Leanizbarrutia (Aretxabaleta, 1956)³. Ardura horretan hasi eta denbora gutxira, Leanizbarrutia eta bere taldekideak konturatu ziren euskara sustatzeko asmoz diruz lagundutako euskarazko mahai-joko, film, bideo eta CDak guztiz ezezagunak zitzaizkiola jende arruntari.

Egoera horretatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzaren ekimenarekin bat egitea erabaki zuen Aldundiak, eta «Euskara da oparirik onena» kanpaina jarri zuen martxan, 2000ko Gabonetan. Aldundiak hitzarmenak sinatu zituen banaketa-kate handietako arduradunekin, euskarazko aisialdiko

3. 87/1991 Foru Dekretua, uztailearen 27koa, Euskararen Normalkuntzarako zuzendari nagusia izendatzeko. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. 144. zk. 11.861. or. (1999ko abuztuaren 30a)

produktuak leku nabarmen eta zehatzetan jar zituzten. Horrekin batera, diru puska bat erabili zuen publizitate-kanpainarako. *Argia* aldizkariak egindako elkarrizketan Luis Bandrés (Pasaia, 1944 - Donostia, 2009) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako diputatu izandakoak esan zuenez, «jendeak ez zeukan buruan sartuta [Gabonetan] euskaraz ere opariak egiteko aukera bazegoela»⁴. «Euskara da oparirik onena» kanpainak arrakasta handia izan zuen Gabon haietan, eta 10.000tik gora euskarazko produktu saldu ziren⁵.

Datu on horiek gorabehera, Bandresen iritziz euskara gazteen artean sustatzeko ordura arte martxan jarritako neurriak «oso tradizionalak» ziren. Aldundia formula berriak pentsatzen hasi zen, kontuan izanda gazteak «gero eta gehiago» egoten zirela ordenagailu aurrean, eta ez zegoela aisialdirako programa askorik euskaraz.

«Euskara zure unibertsoan» kanpaina sortu zuten orduan. «Txipa aldarazi behar genien [eta] demostratu, euskaraz ere bazirela beraiek hainbeste estimatzen zituzten produktu horietakoak, eta erdarazkoak bezain onak» zirela, zioen Bandresek. «Oso aurrekontu urriarekin», Foru aldundiak hiru bideo-jokoren garapena bultzatu zituen: *Estropadak*, *Mendizaleak* eta *Jai Alai Sport*.

Erreterian jokoak sortzen

Hiru joko horiek sortzeko ardura 3DNews enpresarena izan zen. Erreterian kokatutako mikroenpresa hori 1999an sortu zuten ikus-entzunezkoak, 3Dko infografiak, dokumentalak eta bideoak ekoizteko. Adolfo Luzuriaga (Donostia, 1960) enpresako arduradun nagusiak dioenez, «hasiera batean telebistarako lan egiteko asmoa geneukan, baina gai ginen liburuak, esku-orriak eta horma-irudiak argitaratzeko ere».

«Euskara zure unibertsoan» kanpainarako, Gipuzkoako Aldundiko Euskara zuzendariak Lorea Leanizbarrutiak «zenbait enpresari eskatu

4. Garate, Katixa eta Irazustabarrena, Nagore. Elkarrizketa Luis Bandrés: «Gazte askok aisialdirako "txipa" erdaraz dauka». *Argia* aldizkaria, 1828. zk. 15-17. or.

5. Iparragirre, Pilar. «Euskarazko jokoen salmenta hirukoiztu da hiru urtetan». *Argia* aldizkaria, 1907. zk. 47-49. or.

zigun euskara sustatzeko proposamenak egiteko». «Gazte-jendeari zuzendutako proposamen moderno eta orijinalak behar zuten izan, eta hortxe sortu zitzaigun euskarazko bideo-jokoak egiteko ideia».

Luzuriagak aitortzen duenez, garai hartan bere enpresak ez zeukan «bideo-jokoak egiteko programatzailerik», ez baitzen hori «beren filosofia». Hala ere, bideo-jokoen garapena ez zegoen 3DNews-en gaitasunetatik oso urruti. «Euskal Herrian ez ginen asko 3D egiten genbiltzanak», dio.

Aldundiaren «Euskara zure unibertsoan» programak bi urteko iraupena izan zuen, eta bitarte horretan Errenteriako enpresak hiru bideo-joko garatu zituen «euskal kirolei buruz». Lehen biak, *Estropadak* eta *Mendizaleak* 2000. urtean zehar garatu zituzten; hirugarren eta azkena, *Jai Alai Sports*, hurrengo urtean iritsiko zen, Durangoko Azokarako prest.

ESTROPADAK

Luzuriagari bururatu zitzaion lehen ideia arraun-munduko txapelketak ordenagailura eramatea izan zen, Kontxako bandera⁶, bereziki.

Hasiera-hasieratik Luzuriagak argi eduki zuen bere jokoak ez zela simulagailu bat izango, «joko dibertigarri eta entretenigarri bat» baizik. «Lehiari lotutako ezaugarriak aldatu eta estropaden ohiko iraupena murriztu genuen (ohiko 20 minutuetatik 12 minutura), gazteek ordenagailu-pantailaren aurrean denbora gehiegi ez igarotzea baitzen gure asmoa». *Estropadak* izena jarri zioten jokoari.

Izena aukeratuta, Luzuriagak lan-talde bat osatu zuen. «Ezin nuen plantilla finkorik osatu, aukera hori ez baitzen errentagarria enpresarentzat», aipatzen du. «Beraz, proiekturen bat iristen zenean, laguntzaile batzuk biltzen nituen, lana aurrera ateratzen laguntzeko».

«Aldundiaren proiektua iritsi zenean, argi ikusi nuen bi esparru bereizi beharra zegoela: grafismoa alde batetik, eta programazioa, bestetik», dio Luzuriagak.

6. 1879az geroztik jokatzeko da estropada Donostiako badian, irailako lehen bi igandeetan.

Estropadaken alderdi bisualaz Ángel Gómez Espinosa, Iñaki Legorburu, Pedro Domeq, Igor García eta Mariano Peral freelanceak arduratu ziren. «Harreman bikaina» izan zuen haiekin. Programazio-lanak, berriz, Alfredo Requejok egin zituen, garai hartan «Bizkaiko GamePro bideo-joko enpresari⁷ atxikita zegoena nolabait ere».

Estropadaken jokagarritasuna beste kirol-joko batzuetan oinarritzen da, *Track & Field* (Konami, 1983) klasikoa, esate baterako. Jokatzen hasteko, lau koloretako traineruetako bat aukeratu behar zuen jokalaria. «Ez genuen lehiarik sortu nahi eta, horregatik, ez genien izenik jarri traineruei. Hala ere, traineru ezagunenen koloreak daramatzate⁸».

Jokalari bakarrerako jokoak da eta teklatuaren bidez kontrolatzen da. 'C' letra sakatuta markatzen da arraunkaden erritmoa. Arraunlarien nekean eta olatuetan oinarritutako osagai estrategiko «xume-xume» batzuk dauzka jokoak. Lehenbizikoan, kontuan hartu beharra dago arraunkaden erritmo biziak abiada handiagoa ematen duela, baina arraunlariak nekatzearen kontura. Bigarrenean, olatuaren noranzkoa aprobetxatzen da, traineruak «abiadura handia hartu dezan arraunkada gutxirekin».

Itxurari dagokionez, 2Dko grafikoak dituen joko apala da *Estropadak*. Halere, bideoa eta 3D nahasten dituen hasierako sekuentzia ikusgarri bat nabarmentzen da. «Egikera profesionala zeukan, nahiz eta egungo bideo-jokoekin alderatuz gero, haien batere antzik ez izan», dio Luzuriagak.

Jokoak soinu-detaile guztiz ikusgarriak dauzka. Arraunkaden erritmoa markatzen duen traineruko patroia garrasi digitalizatuak nabarmentzen dira, arraunzaleen ahotsekin eta olatu handien tartean aurrera doan traineruaren kroskoaren kontra jotzen duten olatuen soinuarekin batera. 3DNews TVko arduradun nagusiak gogoratzen duenez, soinu horiek «estropadetan eta entrenamenduetan grabatu genituen»⁹.

7. 2001 urte hasieran sortutako bideo-joko enpresa. Bilbon zeukan egoitza.

8. Berdea, arrosa, horia eta morea, hau da, Hondarribia, Pasai Donibane, Orío eta Pasai San Pedroren koloreak, hurrenez hurren.

9. Ibargutxi, Félix. «Igandean plazaratuko da euskarazko lehenengo bideojokoa, estropadei buruzkoa». Gizartea. *El Diario Vasco*. 18. or. (2000ko abenduaren 8a)

Sei hilabeteko lan gogorraren ondoren, eta 12.500.000 pezetako (75.136 euro) aurrekontua erabili eta gero¹⁰, prest zegoen *Estropadak*. Jokoa PC formatuan kaleratu zuten. 2000ko irailaren 7an prentsaurrekoa eman zuten Donostian, Foru Aldundiaren eraikinean, jokoa hedabideei aurkezteko. Han izan ziren Luis Bandrés diputatua, Lorea Leanizbarrutia Euskara zuzendaria eta Adolfo Luzuriaga, jokoaren garapenaren arduradun nagusia.

Estropadak bideo-jokoaren atzean zeuden euskara sustatzeko planen berri eman zuten arduradun politikoeak, eta Luzuriagak, berriz, jokoari buruzko xehetasunak, jokatzeko modua azaltzearekin batera. Biharamunean, Euskal Herriko egunkari nagusiek «euskarazko lehen bideo-joko» gisa aurkeztu zuten *Estropadak*.

Jokoa lau haizetara zabaltzeko, hiru egun geroago, hilak 10, *Estropadak* euskal egunkariekin batera zabalduko zela iragarri zen. *Deia*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Gara*, *Zabalik*, *Diario Vasco* eta *El Mundo-País Vasco*ren igandeko edizioek traineruen jokoaren kopia bat eskuratzeko aukera eman zuten, 750 pezetaren (4,51 euro) truke. Egunkarien bidez banatu eta gero, *Estropadak* 4.500 pezetatan (27,05 euro) jarri zen salgai dendetan¹¹.

MENDIZALEAK

Estropadak jokoa izan zuen harrera ona ikusita, euskarazko bideo-jokoen garapena sustatzen jarraitzea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Etor zitezkeen kritikei aurrea hartuta, Luis Bandresek esan zuen berak ordezkatzeko Aldundiak «ez zeukala bideo-jokoen ekoizle bihurtzeko asmorik», baizik eta, berek hasitako bidearekin «enpresa pribatuak animatu, zeregin horretan murgil zitezen».

10. García de Bikuña, N. «Las traineras inspiran el primer videojuego "Made in Euskadi"». Sociedad. *Deia*. 16. or. (2000ko abenduaren 8a)

11. 76/2000 Foru Dekretua, uztailearen 26koa, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak argitaratutako bideo-jokoak erosteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzen dituen. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. 148. zk. 12.656. or. (2000ko abuztuaren 7a)

Foru Aldundiaren apustuari jarraiki, 3DNews TVk beste bideo-joko bat garatu zuen, hain emaitza onak eman zizkion kirolen gaiari lotuta. Bigarren jokorako euskaldunon mendizaletasuna hartu zuen gaitzat Luzuriagak. «Euskaldunok beti izan dugu lotura berezia mendiarekin, bai mendi-ibiliak eginez, mendigoizaletasunaren bidez nahiz eskaladaren bidez, eta izen handiko mendizaleak ditugu, hala nola, Josune Bereziartu, Iñurategi eta Pou anaiak, Juanito Oiarzabal eta Edurne Pasaban».

Euskal Herriko lau mendi –Anboto (Bizkaia), Biaizpe (Navarra), Egin (Araba) eta Txindoki (Gipuzkoa)– igotzea proposatzen du jokoak, azken proba handirako prestatzeko: Everestera igotzea. Neska-mutil mendizale bikote bat da bideo-joko honetako protagonista, eta *Mendizaleakeko* lau tontorretaraino igotzea da haien helburua. «*Estropadakek* baino askoz kalitate handiagoa du joko honek. Komertzialki ere lehiakorragoa da, eta *Estropadaken* botoi bakarrarekin jokatzen zen moduan, hemen hiru erabiltzen dira».

Teklatuko geziekin kontrolatzen dira mendizaleak, norantz jo behar duten agintzeko. Igoera bakoitzak 64 mugimendu ditu guztira, eta ez dago gailurrera iristeko bide bakarra. Mendian gora doala, mendizaleak irrist egin eta amildegira eror daiteke, eta horrek mugitzen jarraitzeko puntuak kentzen dizkio. «Adimena erabili behar da nola igo erabakitzeko». Erorialdiek piztu zezaketen eztabaida saihesteko, Luzuriagaren taldeak erabaki zuen erortzean protagonistak soketatik esekita geldituko zirela beti. «Ez genuen egoera bortitzik edo odolik erakutsi nahi».

Oro har, *Mendizaleak* askoz sotilagoa zen *Estropadak* baino, tontorrerainoko igoera nola simulatu pentsatu behar izan baitzuten. «Zabaleta eta Everestera igo zen Euskal Herriko lehen espedizioa hartu genituen oinarritzat», azaldu digu Luzuriagak. *Estropadaken* bezala, jokaldi bakoitza gehienez 20 minutu irauteko zegoen pentsatua jokoak.

Mendizaleak garatzeko, *Estropadak* egin zuen talde berarekin jardun zuen Luzuriagak, eta ekoizpena ere 3DNewsTVren aurreko lanaren oso antzekoa izan zen, ez, ordea, aurrekontua: 18 milioi pezeta (108.182,18 euro). Aldundiaren inbertsioa handitzearekin batera asko hobetu zen jokoaren akabera. Egileak gogoratzen duenez, «grafikoak hobeak ziren

aurreko jokokoak baino». «Bost mendi handiak simulatzen zituzten eszenatokiak benetako irudietan oinarrituta zeuden», eransten du Luzuriagak. Donostiako Mirakruz Gaineko Lotura animazio-estudioan aritutako Ángel Gómez Espinosak egin zituen irudi haiek.

2000ko abenduan jarri zuten salgai jokoak, *Estropadak* plazaratu eta lau hilabetetara, biak ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren «Euskara zure unibertsoan» sustapen-kanpainaren barruan. *Estropadakekin* egin zuen bezala, Aldundiak hedabideak deitu zituen bere egoitzara, eta jokoaren xehetasunen berri ematearekin batera, jakinarazi zuen 6.000 ale jarriko zirela salgai¹².

Luis Bandrés Kultura diputatu ohiak geroago eman zuen elkarrizketa batean azpimarratu zuenez, «bai estropada eta mendiaren inguruak euskaraz eginak daude, ez dira gazteleraz egin eta gero itzuli». «Gazte askok euskaraz jakin arren, aisialdirako “txipa” erdaraz daukate». «Euskara zure unibertsoan» programaren asmoa zen euskaraz garatutako materiala eskuragarri jartzea haur eta gazteei, ikastolatik ateratzean, jolas-jarduerak ere hizkuntza horretan egiten jarraitu ahal izan dezaten».

Bandrésék, gainera, erantzun zorrotza eman zuen Aldundiak beste hizkuntzetan garatutako bideo-jokoak diruz laguntzeko aukeraz galdetuta. «[Gazteek] agian nahiago izango dute erdaraz erabiltzea [bideo-jokoak], baina guk ez dugu dirua horretarako gastatzen».

JAI ALAI SPORT¹³

Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako *Estropadak* eta *Mendizaleak* bideo-jokoen garapenak urtebete iraun zuen. Denbora-tartea eta aurrekontua «oso mugatuak» ziren, Adolfo Luzuriagaren esanetan, eta horren ondorioz kaleratu zituzten «bi tituluak apal samarrak ziren egikera eta jokagarritasun aldetik». «Euskara zure unibertsoan» kanpainako hirugarren eta azken lanerako jauzi kualitatibo bat egin, eta

12. «Mendizaleak euskarazko bideo-jokoaren 6.000tik gora kopia jarri dituzte salgai». Kiroalak. *Gara*. (2000ko abenduaren 12a)

13. Xehetasun gehiago: *LOAD: Euskal bideo-jokoen historiako 4. kapitulua* (1985-2009).

produktu «askoz ere modernoago eta asmoz jasoago» landu nahi izan zuen errenteriarak.

Euskal kiroletan oinarritutako bideo-jokoen ildoari jarraiki, gure herri-kirol bat bideo-jokoen mundura eramatea izan zen 3DNewsen proposamena. *LOAD: Euskal bideo-jokoen historiako* 4. kapituluaren (1985-2009) zehazten denez, beste garatzaile batzuk saiatuak ziren lehendik zeregin horretan. Horrek ez du ezertan apaltzen Luzuriagaren enpresaren lana, haiek izan baitziren esku-pilotako eta zesta-puntako euskara hutsezko lehen bideo-jokoa garatu zutenak.

Estropadak eta *Mendizaleakekin* bildutako esperientzia guztia *Jai Alai Sporten* islatu zen. «Alderdi grafikoan garai hartako beste enpresa batzuk eskaintzen zutenera hurbiltzen ari ginen, baina zentratu beharra geneukan». Luzuriagak onartzen du produktu «sendoa» eta «asmo handikoa» eskaini ahal izateko bere taldeak bazituela «hutsune» batzuk, programazioari zegokionez bereziki. Gabezia horri aurre egiteko, lana enpresatik kanpora ateratzea erabaki zuten. Euskal enpresetan bilatu zuten hasieran, baina, azkenean, hitzarmen bat sinatu zuten Jaengo TAOSpain enpresarekin.

19.850.000 pezetako (119.300,90 euro) aurrekontu ofizialarekin¹⁴, bideo-jokoa 2001eko abenduan jarri zen salgai. Lehen aleak Durangoko Azokan eskuratu ahal izan ziren, eta, *Estropadak* eta *Mendizaleakekin* egin zuten moduan, egun batzuk geroago prentsaurrekoa eman zuten *Jai Alai Sport* jendaurrean aurkezteko.

Euskal pilotari buruzko jokoa dendetara iristean, «Euskara zure unibertsoan» programako hiru bideo-jokoak garatzeko osatutako lantaldea desegin, eta negozio horretatik guztiz aldendu zen Adolfo Luzuriaga.

Atsedernaldi labur baten ondoren, 3Dn egindako grafikoek «askoz presentzia argiagoa» zuten dokumentalak eta simulagailuak egiteari lotu zitzaion 3DNews TV. Ildo berri horren barruan, zenbait lan egin zituzten Donostiako KutxaEspazio (Eureka) zientzia-museorako. «Espazioaren simulazioak egin genituen han: nazioarteko espazio-estazioa 3D hutsean, beren *jetpack*ekin hegan zebiltzan astronautekin, baita

14. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 2002ko urtarrilaren 8an argitaratutako datua.

Marteko kolonia bat nola izango zen irudikatu genuen. Han daukaten zineman proiektatzen ziren lan horiek guztiak».

Luzuriagak gaur egun *Diario Vasco*ko kolaboratzailea da, eta *Txispas* ezizenez sinatutako umorezko komikia argitaratzen du bertan.

Elhuyar: zientzia, euskara eta bideo-jokoak

Errenteriako 3DNews TV enpresa ez zen izan Gipuzkoan bideo-jokoak garatzen jardun zuen bakarra. Elhuyar Fundazioak ere -70 hamarkadan sortua zientzia eta euskara uztartzeko- ekoitzi eta garatu zituen hezkuntzari eta euskal gazteen aisialdiari lotutako produktu informatikoak.

Elhuyarrek 1972an eman zituen bere lehen urratsak kultur elkarte gisa. 2002an fundazio bihurtu zen, eta egitura hori dauka gaur egun. 40 urteko ibilbidearen ondoren, 2013an beste eraldaketa bati ekin zion, bere misioa aldatu, bere negozio-unitateak egokitu eta bere irudi korporatiboa zaharberrituz. Usurbilen (Gipuzkoa) du egoitza nagusia.

Sortu zenean, Elhuyarrek entziklopediak eta paperezko materialak egiten zituen, eta Durangoko Liburu eta Disko Azokan aurkezten ziren urtero. Erakusleku apropos eta euskalduna da fundazioarentzat. Hastapen haiek bertatik bertara bizi zituten protagonistetako bat dugu Danel Solabarrieta Arrizabalaga (Ondarroa, 1976), Fundazioak argitaratutako hogeitik gora bideo-jokoen lokalizazio eta sorkuntzaren arduraduna.

«Jendea etortzen zitzaigun Durangoko Azokan genuen postura esanez etxean ordenagailua zeukatela, baina euskarazko programarik ez», diosku Solabarrietak. Produktu digitalen eskari hori ikusita, Elhuyarrek bere lehen programa argitaratu zuen 1994an: *Ezagutu Gipuzkoa*. «Gure lurraldeko kultura, ohitura eta herriei buruz ziharduen CD bat zen».

Hurrengo urteetan ere, entziklopedia multimedien tankerako euskarazko CD hezigarriak argitaratzen jarraitu zuten: *Hiztegi elektronikoa* (1996), *Euskal Herriko fauna* (1997), *Bertsoen mundua* (1997), *Animaliak, zure lehen entziklopedia* (1998), *Euskal Herriko musika tresnak* (1999), *Jolastuz ikasi aditz laguntzaileak* (1999) eta *Euskal Herria entziklopedia multimedia* (2000). Programa horiek ikasteko erabiltzen

ziren, eskolan nahiz etxean. Aipatutako lan guztien artean, *Animaliak, zure lehen entziklopedia* nabarmentzen du Solabarrietak, «haurrei zuzendutako euskarazko lehenbiziko CDa izan baitzen».

Hurrengo urtean, 2001ean, Elhuyar Fundazioa entziklopediez besteko CDak lantzen hasi zen: joko hezigarriak. *Piratekin, matematikaren munduan* eta *Piratekin, hizkuntzaren munduan* nabarmentzen dira, «haurrek matematika eta euskara ikasteko sortuak». Izugarritzko harrera ona izan zuen eta, hala, azkenerako bost jokoz osatutako frankizia bihurtu zen *Piratekin*. «Bospasei pantaila zeukan joko bakoitzak, eta pantaila horietako bakoitza mini-joko bat zen».

Danel Solabarrietak azaltzen duenez, jokoak «soil samarrak» ziren, «aurrekontu apalekoak», eta «asko jota sei hilabete» ematen zituzten haiek garatzen. «Edukia zehaztu, lan-metodologia erabaki eta ukitu ludikoa ematen zitzaien: joko bihurtzen ziren, alegia». Fundazioko bertako talde batek egiten zituen jokoak: programatzaile batek, grafista batek eta edukien garatzaile batek. *Piratekin* frankiziako joko guztiek euskarazko ahotsak zeuzkaten. Hasiera batean Donostiako Xirula Mirula estudioan egin zituzten grabazioak, baina handik gutxira Fundazioak¹⁵ Usurbilen zeukan grabazio-estudiora aldatu ziren.

Ekoizpen horrek guztiak xede garbi bat zeukan: Durangoko Azoka. Negozioaren puska handi bat euskal kultur produktuen sustapenera emandako egun horietan gauzatzen zen. Gainera, Durangok arrastoa ematen zien urtean zehar salmentak zer moduz joango ziren jakiteko. «Guretzat 1.500 ale saltzea egundoko arrakasta zen». «Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Aldundiak diru-laguntzak ematen zizkiguten softwarea argitaratzeko, eta salmentekin gastuak berdintzea lortzen genuen».

2002an Danel Solabarrieta Fundazioan sartzean multimedia edukien sorkuntzaz arduratzen zen koordinatzailea aldatu, eta software-lerro

15. Elhuyar Fundazioak Usurbilen du egoitza, eta ikus-entzunezkoak grabatu eta ekoizteko estudio bat dauka han. Bertan egiten dituzte «Norteko ferrokarrila» irratsaioa eta «Teknopolis» telesaioa. Azken hori astero ematen da EITBn, eta Tecnaliaren 2014ko edizioko Kazetaritza Saria irabazi berri du, «zientzia eta teknologia euskal gizarteari hurbilduz egindako ibilbideagatik eta landutako gaiak kazetaritzaren ikuspegitik duten kalitateagatik». [on line] <http://www.tecnalia.es/eu/premio-de-periodismo-2014> [Kontsulta: 2015eko otsailaren 10a]

berri bat zabaldu zuten: *Gipuzkoa zure esku*¹⁶ (2002) eta *Oroimenaren lapurrak* (2003) abentura grafikoak. Aldaketa haiei jarraiki, ordura arte ekoiztutako jokoetan haratago jo eta jokagarritasunari garrantzi handiagoa ematen hasi ziren, jokoan alderdi hezigarria baztertu gabe. Sei-hamabi urte bitarteko haurrentzako zeuden pentsatuta joko haiek.

Besteren jokoak itzultzen

Solabarrietak Elhuyarren entretenimendurako software-katalogoa abentura grafikoekin berritzeko egindako ahalegina gorabehera, Fundazioak matematika, euskara eta musika ikasteko programak sortzen jarraitu zuen 2006ra arte¹⁷.

Hortik abiatuta, euskarazko bideo-jokoei ekin zieten berriz ere, baina orduko hartan produktua berek garatu beharrean, beste enpresa batzuek egindako bideo-jokoak euskaratu eta banatzea erabaki zuten. Solabarrietak azaltzen duenez, «gaztetxoek eskatzen zizkigutenak bezalako jokoak garatzeko baliabiderik ez genuelako hartu genuen erabaki hori».

Ordutik aurrera, ondarroarraren egunerokoa zeharo aldatu zen Elhuyarren. «Fundazioak finkatutako ildoarekin bat zetozen bideo-jokoak bilatzen jarduten nuen. Jokoak proba eta proba ematen nuen eguna. Lankideek inbidia galanta zidaten eta nire Elhuyarreko garairik dibertigarrienetakoa izan zen», gogoratzen du irribarretsu. «Jokoren bat gustatzen bazitzaidan, harremanetan jartzen nintzen banatzaile edo garatzailearekin. Batzuek ez zidaten batere jaramonik egiten -onartzen du-, eta beste batzuek esaten zidaten lizentziak dirutza bat balio zuela, eta ezin genuela ordaindu».

Solabarrietak azaltzen digunez, halako batean, joko «izugarri on bat aurkitu nuen, *Hiru mosketariak* izenekoa¹⁸ (Legendo, 2005)». «Haiekin

16. Mahai-joko gisa ere egon zen salgai: *Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa*.

17. Danel Solabarrietak dioenez, 2002 eta 2006 urte bitartean Elhuyarrek hamar CD-Rom multimedia hezigarri argitaratu zituen.

18. Alexandre Dumasen eleberriko pertsonaietan oinarritutako *Hiru mosketariak* jokoak Suediako Legendo enpresak garatu zuen 2005ean.

harremanetan jarri, eta jokoia euskaratzea proposatu genien». Legendok ez zuen oztopo handirik jarri. «Oso ohituta zeuden beste enpresa batzuekin lan egiten¹⁹, eta fundamentu handia zeukaten».

Elhuyar Fundazioak lizentziaren kostua ordaindu, eta jokoaren testuak Usurbilera bidali zituen suediar enpresak. Solabarrietaren taldeak testuak euskaratu eta egokitu, eta jokoaren ahots guztiak grabatu zituen. «Material hori guztia Legendora bidali, eta haiek lehen master batean bidali ziguten. Hemen testeatu, eta akats txiki batzuk zuzendu genituen». Behin betiko kopia eskutan, Madrilgo enpresa bati eskatu zioten CD kopia fisikoak egiteko, jokoak salgai jartzeko.

«Hiztegiak eta gure gainerako produktu guztiak erabiltzen ditugun bide berberak erabili genituen jokoia banatzeko: Elkar enpresa banatzailea. Bide horretatik iritsi ginen liburu-dendetara. Elhuyarren on line dendan ere jarri genuen jokoia salgai, baina garai hartan jendeak beldurra zion Interneten gauzak erosteari. Nahiago zuten dendara joan, eta han zuzenean erosi». *Hiru mosketariak* 2006ko abenduan jarri zuten salgai, eta urte hartako Durangoko Azokako produktu salduenetakoa izan zen.

Elhuyar Fundaziorako azokak «berebiziko garrantzia» zeukan. «Durangora iritsi ezean, jendeak ez baitzuen zure produktua ezagutzen, eta ez zuen erosten Gabonetako opari gisa. Durangorako prest egon behar zuen nola edo hala».

Elhuyar-Legedoren bideo-jokoia ederki saldu zen, «eta gure bideo-jokorik arrakastatsuenetakoa izaten jarraitzen du oraindik. Ez dugu inoiz katalogotik kendu eta salduz joan da pixkana-pixkana, Windows 2000ren ondorengo sistema eragileetan ere funtzionatzen jarraitzen duelako bereziki».

Bideo-jokoak izan zuen harrera bikaina ikusita, beste enpresa batzuen lanak euskaratzen jarraitzea erabaki zuen Fundazioak. Hurrengo urtera begira, Solabarrieta Legendorekin jarri zen harremanetan berriro ere, joko berririk ba ote zuten jakiteko. «Ez zitzaizkidan gustatu», onartzen

19. Hemeretzi herrialdetan eta beste horrenbeste hizkuntzatan kaleratu zuten jokoia.

du samintasunez. «Testu gutxitxo zeukaten, eta ez zetozen bat gure asmoekin». Beraz, Elhuyarrentzako bideo-jokoak bilatzeari ekin zion berriro ondarroarrak.

Tate Interactive poloniar enpresaren joko bat aurkitu zuen handik gutxira. *Kao: Sumendiko sekretua* izena zuena. Bederatzi-hamar urte arteko gazteei zuzenduta zegoen. Jokoa «korapilatsuagoa zen *Hiru mosketariak* baino, baina baita luzeago eta osoagoa ere». «Aurrekoa 2Dko plataforma-joko soil bat zen; *Kao*, berriz, erabat 3Dn sortutako unibertso batean garatuta zegoen», diosku Solabarrietak.

Kao izeneko kanguru bat da jokoaren protagonista, eta Tximista laguna salbatu behar du Pelikanoen uharteko sumendi barrutik. Xaman baten laguntzarekin, munstroei aurre egin behar die Kaok hamar esparrutan zehar, eta bertan, lasterketa birtuala irabazi, puzzleak osatu, txalupak gidatu eta are dueluan lehiatu beharko du, airetiko borrokaldi sutuetan.

Elhuyarren eta Tate Interactiveren arteko harremana, Legendo suediarrekin izan zutenaren antzekoa izan zen. Bideo-jokoa euskaratu eta salgai jartzeko epea Durangoko Azoka izan zen berriro ere. Aurreko aldian bezala, «ez zen inolako arazorik egon poloniarrekin. Oso jende profesionala ziren». Halere, Solabarrietak dioenez, orduko hartan denbora gehiago behar izan zuen *Kao: Sumendiko sekretuako* testu guztiak testeatzeko, «luzeagoa baitzen eta testu guztiak beren lekuan zeudela egiaztatu beharra zegoen».

Jokoa prest egon zen aurreikusitako datarako, eta 24,95 euroan saldu zuten. Jokoa funtzionarazteko oinarritzko eskakizunak ziren PC bat Windows 95 edo berriagoarekin, 1 Ghz-ko abiadurako prozesagailu bat, 256 MB Ram memoria, 500 MB disko gogorrean ea 32 MBko txartel grafikoa.

***Publisher* lanak egiten**

Kao: Sumendiko sekretua argitaratu eta gero, Tate Interactive poloniarrekin sinatutako hitzarmena berritu nahi izan zuen Elhuyarrek. «Haien katalogoan bazeuzkaten Fundazioaren helburuetarako egokiak ziren produktuak, baina lizentzien negoziazioa nahastu egin zen». «Ez zen diru

kontua, sistema aldatua zela baizik: lizentziak banaketa-enpresen bidez saldu behar zituzten orduan, eta haiekin hitz egitea askoz zailagoa zen», azaltzen digu Solabarrietak.

Elhuyarrek berriro ere estrategia aldatzea erabaki zuen orduan, eta, kanpoko enpresa batek lagunduta, bere lan propioak ekoitzi, argitaratu eta banatzeko aukera aztertu zuten. «Erabiltzaileek bazeukaten esperientzia, ohituta zeuden kontsolarekin jokatzeko, ezagutzen zituzten beste joko batzuk, eta ez ziren edozerrekin konformatzen. Alderantziz: gehiago nahi zuten. Konturatu ginen ordura arte egiten genituen jokoak herren samar gelditzen zirela», adierazten du Solabarrietak. Bideo-jokoak edukia diseinatu eta sortzeaz arduratuko ziren beraiek, eta berariaz kontratatutako garapen-enpresa baten esku utziko zuten alderdi teknikoa.

Muga haiek gainditzeko, Estatu osoko hainbat garapen-enpresarekin harremanetan jarri ziren. «Haitako bat Castellón zegoen: han ezagutu nuen Nerlaska²⁰. Enpresa hasi berria zen, eta bospasei mutilek osatzen zuten. Motor bat ari ziren prestatzen, eta jokoak egiten joateko erabili nahi zuten».

Tomás Marco Nerlaskako bazkide eta zuzendari exekutiboak honela gogoratzen du: «Elhuyarrek euskara irakatsi eta dinamizatzeko jokoak egin nahi zituen. Gurekin harremanetan jarri, beren ibilbidearen berri eman, guk hainbat pertsonaia proposatu, eta hortik abiatu zen guztia». Hiru urtean joko bana ekoizteko hitzarmena sinatu genuen, 20.000 ea 25.000 euro bitarteko aurrekontuarekin joko bakoitzeko, eta lana Durangoko Azokarako prest edukitzeko betebeharrarekin».

Elhuyar-Nerlaskaren lehen lanerako, sei-hamabi urte bitarteko haurrentzako joko bat egitea proposatu zien Solabarrietak. «Super Mario Bros-en tankerako plataforma-joko bat egitea bururatu zitzaigun, jokoari eduki hezigarriak gehituta. Adibidez, ate bat dago, batuketa bat agertzen da eta, emaitza zuzena lortuz gero, ireki egiten da atea», azaltzen digu.

20. 2004 urte amaieran sortua. *Indies* batzuek osatutako talde beteranoa zen, eta 1990eko hamarkadan beste enpresa batzuetako enkarguak iristen hasi zitzaizkien, Iridion edota Legendo Entertainment-enak adibidez. Beren joko guzti-guztiak ekoitzi eta garatzeko erabiltzen zuten NLKEngine motorraren garapenak enpresa sortzera eraman zituen azkenean.

Une horretan sortu zen *Armix baso magikoan* (2007). «Ohiko 2Dko plataforma bat zen, baina 3Dko grafikoeekin», argitzen du Tomás Marco Nerlaskako zuzendari exekutiboak. Abenturako protagonistak -Armix deritzon giza itxurako armiarma gaztea- «gaizkile misterioitsu» batek lapurtu duen erleen ezta berreskuratu behar du.

Jokoan Armixek faseak osatu behar ditu, oztopoak gainditu eta hainbat eratako arerioak KO utziaz. Tarteka, jarraitu ahal izateko galdera batzuk erantzun behar dira matematika, euskara eta ingurunearen ezagutzari buruz. 1.200 galdera ditu jokoak, eta 20 eszenatoki baino gehiago. «Joko xumea da, baina kariño handiz gogoratzen dut», azpimarratzen du haren arduradun nagusiak.

Nerlaskan egindako lanak hiru hilabete iraun zuen. Lan-talde txiki batek parte hartu zuen: grafista batek, musikari batek²¹ eta ekoizpen-lanak ere egiten zituen programatzaile batek. «Proiektu osoan zehar bizpahiru lagunek jardun genuen», diosku Marcok. «Egia esan, ez genuen zailtasun handirik izan proiektua garatzeko. Ordurako gure NLKEngine motorraren bertsio egonkor eta probatua geneukan aurretiko beste joko batzuekin, *Wanted Guns* (2003), *Billy Blade y el Templo del Tiempo* (2004) eta *Dracula Twinsekin* (2006), adibidez». *Hiru mosketariak* eta *Kao: Sumendiko sekretua* jokoekin egin bezala, Elhuyar Fundazioa arduratu zen testu guztiak idazteaz, bai eta jokoak testeatu eta haren amaierako kalitatea ziurtatzeaz ere.

2007ko urriaren 23an, Elhuyar Fundazioko ordezkariak dotore-dotore agertu ziren Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, *Armix, baso magikoan* bideo-jokoa aurkezteko. Hedabideen aurrean egindako agerraldi hartan, Itziar Nogueras Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusiak eta Danel Solabarrietak bideo-jokoaren xedea azaldu zuten, «umeeek eskolan ikasten duten materiala lantzeko bideo-jokoek duten entretenimendurako potentziala» nabarmendu eta jokoa «helduentzako ere erakargarria zela» aipatzearekin batera.

21. Musikaz, berriz, David Font *synchrnznr* freelance katalana arduratu zen. [on line] <http://www.synchrnznr.com/es.gallery.armixbasomagikoan.html> [Kontsulta: 2015eko otsailaren 6a]

Aurreko aldietan bezala, bideo-joko berriak bere gune propioa izan zuen Elhuyarrek Durangoko Azokan jarritako postuan, eta 24,95 euroan jarri zuten salgai.

Nerlaskaren bigarren lanak *Armix baso magikoanen* ildoari jarraitu zion, baina erabat 3Dan egindako mundu batera eramanda aurreko mekanika, «Nintendo 64ren *Super Mario 64*ren (1996) eta *Banjo-Kazooier*en (1998) erreferentzia argiekin», Daniel Solabarrietaren esanetan. Elhuyarrek bideo-kontsolen mundua hurbildu nahi zuen eta *Armix ilargian galduta* (2008) apustu haren adibide garbia izan zen.

Armix ilargira kohete batean bidaiatzean hasten da bideo-jokoko istorioa. Ilargiratu eta gero, izaki misteriotsu batzuek kohetea lapurtzen diote. Jokalariek etxera itzultzeko modua bilatzen lagundu beharko diote Armixi. Ez da eginkizun erraza izango, ezin konta ahala arerori aurre egin beharko baitie Armixek. *Armix baso magikoanen* gertatu bezala, matematika, euskara eta gizarte-gaiei buruzko 100 galdera erantzun beharko ditu jokalariai, Ilargiaren zoko-bazter guztiak miatzen jarraitzeko gakoa baitira galdera horiek.

Tomas Marcok gidatutako lan-taldeak zailtasunen bat edo beste izan zuen bideo-jokoa garatzeko garaian. «Kamerarekin gertuago ibili behar izan genuen, baina, gainontzean, ezustekorik ez. Primeran joan zen dena». Hiru hilabete iraun zuen ekoizpen-lanak.

Elhuyar Fundazioaren eta Nerlaskaren arteko elkarlana *Armix Kart* (2009) izeneko hirugarren eta azken bideo-jokoarekin amaitu zen. «Nintendoren jokoen antza zeukan, eta *Super Mario Kart* (1992) moduko bat egiten saiatu ginen, hau da, gidatzeko joko bat, Armixen munduko pertsonaia ezagunak kart-lasterketa batean lehian jartzen dituen».

Jokoaren funtzionamendua Nintendoren jatorrizko jokoak duenaren antzekoa da, eta lasterketan zehar objektu batzuk hartzeko aukera dago, lehian lagungarriak direnak. Horretarako ordea, onura horiez baliatu ahal izateko, jokalariek zenbait galdera erantzun behar baitituzte matematika, euskara eta ingurunearen ezagutzari buruz.

Tomas Marcok azaltzen duenez, joko honekin «zailtasun gehiago» izan zituzten aurrekoekin baino. «Ez geneukan esperientziarik auto, lasterketa eta gidatzeko jokoeekin. Adimen artifiziala, kameraren kudeaketa, marrazketa... Gogoan dut izan genuela buruhausterik gauza batzuekin. Baina, oro har, eta beti bezala, azkenean aurkitu genuen buruhauste haiek konpontzeko modua».

Bide-joko sorta honetako aurreko bi jokoeekin alderatuta, *Armix Karten* ederki ikusten da Nerlaskako taldeak izandako bilakaera eta bildutako esperientzia. Hirugarren hau askoz lan osoagoa eta borobilagoa da eta aukera ematen du, gainera, bi jokalaria batera aritzeko, pantaila erdibituta. Aurreko *Armixak* bezala, hau ere garaiz iritsi zen 2009ko Durangoko Azokara²².

Armix Kart ez zen, baina, Elhuyarrek Durangon aurkeztutako nobedade bakarra izan. Hilabete batzuk lehenago, Danel Solabarrietak zuzendutako taldeak haurrentzako beste joko bat garatu zuen, *Zoo zoroa*, Galiziako Imaxin software-estudioarekin batera. Elhuyarrek euskaraz argitaratu zuen jokoa, eta Imaxinek gaztelaniaz eta galegoz.

Galiziako Xuntak eta Galiziako Kultur Industrien Agentziak diruz lagundutako joko hura Flash-en eta XML-en zegoen programatuta. Haren sustatzaileen hitzetan, «2-5 urte bitarteko haurrak teknologiak erabiltzen ohitzen hasteko joko hezigarri digitalen bilduma bat» zen. Jokoak hiru fase edo esparruz osatuta zeuden, eta jarduera batzuk egin behar ziren fase haietako bakoitzean. Etxeko txikiek jokoko pertsonaien gainean sakatu behar zuten, haiekin elkarrekintzan jarduteko. Euskarara itzulitako bertsioan, jokoa ordenagailuetarako formatu fisikoan argitaratu zuen Elhuyarrek.

Kontsolarako jauzi ezinezkoa

Solabarrietak ikusi zuen kontsolen mundua «oso indartsu zetorrela», eta, beraz, Elhuyar Fundazioak mundu ezezagun hartan sartzea erabaki zuen. «Bidaia batzuk egin genituen Madrileran, bilera eta harreman batzuk izan genituen banatzaile handiekin ».

22. 2009ko edizioan, Durangoko Azoka abenduaren 11n hasi zen.

Bilera haietako bat Ubisoft-en Espainiako egoitzan egin zuten²³. «Jator-jatorrak ziren. Ederki joan zen bilera, eta pila bat ikasi nuen. Oso argi zeuzkaten gauzak: Euskal Herrian merkaturik egonez gero, gurekin batera sartuko ziren, eta lagundu egingo ziguten beren jokoak euskaratzen». Bideo-jokoen erosle euskaldunen kopuru potentziala, ordea,²⁴ txikiegia zen, eta bide hori *standby*n uztea erabaki zuen Elhuyar Fundazioak.

2008an beste aukera bat sortu zen. Elhuyarreko lokalizazio eta garapeneko arduradunak jakin zuenez, *Hiru mosketariak* jokoa Nintendo Wii-n ateratzeko asmoa zeukan Legendok, Wiiware izeneko bere banaketa digitalerako plataformaren bidez. «Deitu eta esan nien jokoa euskaraz argitaratu nahi genuela, kontsoletarako». Legendok ez zuen inolako trabarik jarri.

Azken orduan, baina, okertu egin zen dena. Nintendok ezarritako mugen ondorioz²⁵, suediar enpresak euskara baztertu behar izan zuen *Hiru mosketariak* jokoko hizkuntza-aukeretatik. Solabarrietak aitortzen duenez «sekulako zaplastakoa» izan zen hura, bere sailak zeukan asmorik potoloenetako batentzat. «Urte haietan ez genuen lortzen finkatuta geneukan helburua, baina, halere, asko ikasi genuen bideo-jokoen munduari buruz».

Bestelako bidea

Armix sailak eta Zoo zoroak izandako salmentak ikusita, somatzen zen aurreko urteetako datu bikainak garai oparagoetako oroitzapenak

23. Bideo-jokoak garatzen eta banatzen dituen frantziar multinazionala, 1986an sortua. Haienak dira, besteak beste, *Assassin's Creed*, *Far Cry*, *Rayman* eta *Just Dance* bideo-joko ezagunak.

24. Solabarrietak azpimarratzen duenez, Durangon inoiz izandako salmenta-kopururik handiena 2.000 alekoa izan zen, eta horri «urtean zehar saltzen zena gehitu behar zitzaion». Kopuru hori ez zen nahikoa Ubisoft multinazionalaren interesentzat.

25. Legendok 2009ko uztailaren 31n argitaratu zuen jokoa, formatu digitalean, Nintendo Wii-ren Wiiware zerbitzuaren bidez. Wiiware-k ezarritako mugetako bat zen deskargatu beharreko jokoez ezin zutela 40 MB baino gehiago izan, eta, horren ondorioz, garatzaileek hizkuntza gutxi batzuk aukeratu (ingelesa, alemana, frantsesa, gaztelania eta italiara), eta gainerakoak baztertu egin behar izan zituzten.

bestarik ez zirela. Danel Solabarrietaren iritziz, Euskal Herriko etxeetan banda zabaleko interneta jarri izanak eragin zuen beherakada hori. «*Armix Kartekin* konturatu ginen salmentak izugarri jaitsi zirela, eta egoera horri buelta eman ezinik gelditu ginen», diosku saminez. «Aldatuak ziren kontsumo-ohiturak, eta formatu fisikoko bideo-jokoak ekoizteari uztea erabaki genuen».

Hala eta guztiz ere, «jauzi xume» bat egin genuen mugikorren esparrura, euskara ikasteko *Kxo! app*-aren bidez. «Arazoa zen ezinezkoa dela mugikorrerako joko bat 30 euroan saltzea. Hiru euro kobratu eta hamar aldiz gehiago saldu behar duzu eta Euskal Herrian hori ezinezkoa da. Mugikorren kontua horregatik ez zen aurrera atera».

Solabarrietak azpimarratzen du mundu digitalean «gero eta eduki gehiago dagoela euskaraz, baina jokoak oso gutxi». Nolanahi ere, dioenez, «gaztetxoei euskaraz jokatzeko aukera emanez gero, gehienek baietz esango dizute, baina aukera hori eskaintzen ez bazaie ez diote jokatzeari utziko. Aitzitik, jokatzeko jarraituko dute, gaztelaniaz edo ingelesez izan arren. Gaur egun ez dago mugarik».

Azken urteetan, Elhuyar Fundazioak berrantolatatu egin ditu bere ildo nagusiak, zientziaren eta euskararen alorrean dauden dibulgazio-premia berrietara egokitzeko. «Beste lan-ildo bat zabaldu dugu, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera zientziak irakasteko metodologia aldatzen gabilta, gaitasunak oinarritzat hartuta».

Zeregin berri horri lotuta, Solabarrietak bazterrean utzi du bere asmorik handienetako bat: abentura grafiko, rol-joko eta bideo-jokoak egitea. «Ederra izango zen *Layton irakaslea* frankiziaren euskarazko bertsioa egin ahal izan bagenu²⁶».

Bizkaian ere

Kapitulu honetan guztian zehar Gipuzkoan garatutako euskarazko proiektu eta bideo-jokoez aritu gara. Egia da herrialde horretan garatu

26. Misteriozko jokoen saila, asmakizunetan oinarritua, Level5 japoniar enpresa garatzaileak sortua, Nintendo DS eta Nintendo 3DS kontsola eramangarrietarako bereziki.

zela ekoizpen gehiena, baina Bizkaian ere badugu adibiderik, 2000ko hamarkadako lehen erdian, Gestionet-en eskutik.

2001eko abenduaren 28an Erandion sortutako enpresa hau sei lagunez osatutako lan-talde batekin hasi zen lanean, haietako lauk bazkide fundatzaileak direla: Iñigo Ocariz, Juan Carlos Alonso Barreiro, Urko Valverde eta Juan de Miguel. Hasiera batean ez zeukaten bideo-jokoak garatzeko asmorik, enpresetarako simulagailuak (*business games*) egitekoa baizik, unibertsitatean eta lanbide-heziketako ikastetxeetan erabiltzeko.

Gestioneten lehen simulagailua ekoizteko denbora «gaizki kalkulatu» zuten, eta, beraz, «beste diru-sarrera batzuk» bilatu behar izan zituzten, gailua bukatu bitartean. «Berez, gure lehen bezeroa Ibaizabal argitaletxea²⁷ izan zen, ipuin elkarreragile batzuk egiteko kontratatu baikintuen, animazio eta audioekin. *Egiaren ispilua* izena zeukan lehen ipuinak».

2002ko urte hartan bertan, *Aukera* eta *Trueke* jokoak garatu zituzten euskaraz eta gaztelaniaz, Garapen-Lankidetzarako Euskal Agentziarentzat. «*Trueke* jokoa Erdi Aroan zegoen kokatuta, eta artilemerkatari baten ikastun bihurtzen zen jokalaria. *Aukera* jokoan, berriz, postu bat jarri behar zen azoka batean, bideo-joko labur eta dibertigarri batzuen bidez». «20.000tik gora kopia argitaratu ziren», azaltzen digu Juan de Miguelek.

Basajaunen kondaira izan zen bizkaitarrek garatutako jokoen artean arrakastarik handiena izan zuena. Euskaraz egin zuten oso-osorik, eta 2003ko azaroan eman zuten argitara, Ibaizabalekin elkarlanean jardunez berriro ere. «Arrakasta itzela izan zuen urte hartako Durangoko Azokan, eta Gabonetan 8.000 inguru ale saldu genituen». Euskal mitologian oinarritutako estrategia-joko bat zen. «Gabon haietan Euskal Herriko hedabide guztietan egoteko aukera eman zigun [jokoak]», gogoratzen du De Miguelek.

27. Bizkaiko argitaletxea, Espainiako Edelvives-en jabetzakoa: euskarazko testu-liburuak, material pedagogikoa, euskarazko literatura eta haur eta gazte literatura argitaratzen ditu.

Urtebete geroago, *Eguzkiaren uhartea* kaleratu zuten: *Sim City*²⁸ klasikoaren antzeko metodologia darabilen kudeaketa-jokoa, ingurumenaren jasangarritasuna sustatzen duena. 5.000tik gora ale banatu zituzten Euskal Herriko ikastetxeetan.

Azkenean, Gestioneten *business games* ildoak bere martxa hartu zuen, eta hasiera batean aldi baterakoa izatekoa zen euskarazko bideo-jokoen ekoizpena sendotu eta negozio-ildoak bihurtu zen. De Miguelen enpresak TxapelGames marka dauka gaur egun, eta euskarazko 30 bat bideo-joko eskaintzen ditu marka horren barruan, guztiak ere hezkuntzarekin lotuak eta euskal erakundeen euskara sustatzeko programen barruan garatuak.

Gestionetek landutako euskarazko bideo-jokoen aurrekontua 15.000-45.000 euro artekoa izaten da, oro har, eta asko jota lau hilabete behar izaten dituzte jokoak garatzeko, hiru-bost pertsona bitarteko lan-taldeetan.


28. Maxis-en jokoa, hirien sorrera, kudeaketa eta bilakaeran oinarritua. Will Wright-ek sortu zuen 1989an.



Estropadak:
3DNews TV llevó las competiciones de remo al ordenador en el primer videojuego hecho totalmente en euskera



Mendizaleak:
Mendizaleak permite emular a Juanito Oyarzabal sin salir de la habitación



Jai Alai Sport:
Técnicamente, Jai Alai Mezclo artesanía digital con la
tecnología 3D más puntera del momento



Ezagutu Gipuzkoa

El conocimiento de la cultura, tradiciones y pueblos de Guipúzcoa era el eje central de Ezagutu Gipuzkoa




Oroimenaren lapurrak

Primera aventura gráfica de la Fundación Elhuyar tomaba prestada algunas ideas de los clásicos juegos LucasArts




Hiru mosketariak

Desarrollado por Legendo y traducido al euskera por Elhuyar, se trata del videojuego más exitoso de la Fundación.



Kao Sumendiko Sekretua

Los videojuegos en euskera dieron un salto al universo en 3D



Armix Basoan magikoan, Armix Ilargian galduta y Armix Kart
 La combinación Elhuyar-TAOSpain permitió la creación de la mascota Armix y de la franquicia más famosa de la Fundación



Zoo Zoroa

La línea de desarrollo de videojuegos de Elhuyar se cerró con este sencillo videojuego dirigido a los más pequeños de la casa.

EL EUSKERA EN LOS VIDEOJUEGOS

Si existe un elemento que marca la singularidad de la sociedad vasca, esta es su lengua. Las primeras referencias del euskera datan de la Edad Antigua, y lo sitúan en la zona norte de la Península Ibérica y en el sur de Francia, junto al Golfo de Bizkaia. No obstante, para localizar los primeros programas informáticos en euskera no hay que viajar tanto en el tiempo; sólo hasta la mitad de la década de los noventa.

Es en ese periodo cuando se localizan los primeros productos interactivos para ordenadores, es decir, un tipo de software de corte didáctico vinculado al ámbito educativo, con el objetivo de poder trabajarlos ludicamente en el aula y en casa. Hoy en día, este tipo de programas llevan el nombre de *serious games*. Asociaciones culturales como Elhuyar o Ikastolen Elkartea-Federación de Ikastolas¹ fueron los pioneros en el desarrollo de este tipo de materiales, dirigidos a un público con edades comprendidas entre los 3 y los 18 años.

Sin embargo, es a la entrada del nuevo siglo cuando comienza a crecer el interés por este tipo de productos, especialmente con la llegada de los IBM compatibles (PC) al mercado. Un cambio que ayudó a sacar la informática de las oficinas y llevarla a las casas. En Euskadi, este factor se vio impulsado por el programa del Gobierno Vasco 'Konekta zaitez'², que subvencionaba la adquisición de equipos informáticos para las familias, y que trajo un incremento del parque de ordenadores en la Comunidad Autónoma Vasca.

Los datos del Instituto Vasco de Estadística (Eustat) así lo reflejan. En el tercer trimestre del año 1999 sólo el 32,7% de la población

1. Organización de escuelas vascas fundada en 1987. Más información en Euskaltzaindia, "El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010". www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/75409.pdf [En línea] (Consulta: 6 de febrero de 2015)

2. Programa incluido en el plan "Euskadi en la Sociedad de la Información" cuyo fin era facilitar el acceso a Internet de todos los ciudadanos subvencionando la adquisición de un ordenador con conexión a la red, en colaboración con entidades financieras. Se puso en marcha a finales de noviembre del año 2000.

vasca mayor de 15 años disponía de ordenador en casa. En 2014, ese porcentaje alcanzó el 77,2%³.

El crecimiento exponencial de equipamientos en Euskadi, así como la introducción de asignaturas como la informática en el currículum educativo vasco, generaron un aumento de la demanda de programas informáticos en euskera. Una necesidad que fue suplida gracias a acuerdos de colaboración entre el Gobierno Vasco, empresas desarrolladoras de software y asociaciones locales. Pero la petición de más software no quedó ahí. Los usuarios continuaban exigiendo mucho más. Es en aquel momento cuando surgen los primeros videojuegos en euskera.

Promocionando el euskera

Hasta entonces, los primeros videojuegos hechos en Euskal Herria terminaban en las tiendas españolas, esto es, en el mercado interno. Era una época en la que los desarrolladores sabían que únicamente con las ventas estatales podían recuperar toda la inversión e, incluso, obtener beneficios. Por esta razón no veían la necesidad de incluir en el juego otros idiomas que no fueran el castellano.

Sólo productos puntuales, con visión internacional de la línea de 'Risky Woods' (Zeus Software, 1992) y las máquinas recreativas de Picmatic 'Los Justicieros' (1993) y 'Marbella Vice' (1994), fueron traducidos al inglés.

